



ERREKTORE KONTSEILUAK BERDINTASUN-PLANAREKIN DUEN KONPROMISOA

SOM ENERGIA, SCCL-k adierazten du emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna integratzen duten politikak ezartzeko eta garatzeko konpromisoa hartzen duela, sexuan oinarrituta zuzenean nahiz zeharka bereizi gabe, eta baita erakunde barruan benetako berdintasuna lortzeko neurriak bultzatzeko eta sustatzeko ere, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna Kooperatibaren Politika Korporatiboaren eta Giza Baliabideen gaineko Politikaren printzipio estrategiko gisa ezarrita, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan arautzen den printzipioaren definizioarekin bat etorriaz, zeinak haxe xedatzen baitu:

“Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioak berarekin dakar sexuan oinarritutako bereizkeriarik eza, bereizkeria hori zuzenekoa nahiz zeharkakoa izatea gorabehera, eta, bereziki, amatasun-egoeraren, familia-betebeharrak hartzearen eta egoera zibilaren ondoriozkoa.”

Kooperatibaren jardura garatzen den lan-eremu guzti-guztietan (hautaketa, promozioa, soldata-politika, heziketa, lan-baldintzak eta kontziliazioa), gure egiten dugu emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa, zeharkako bereizkerian arreta berezia jarrita. Halaber, berariazko borondatea dugu printzipio hori Kooperatiba osoan aplikatzeko, baita bazkide-oinarrian ere. Hala, zeharkako bereizkeriatzat joko dugu goian aipatutako araudiko 6.2. artikuluan xedatzen dena:

“Sexuan oinarritutako zeharkako bereizkeria da, itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo eginera batek sexu jakin bateko pertsonentzat desabantaila jakin bat ekartzea beste sexuko pertsonen begira.”

Som Energiaren kasuan, generoan oinarritutako bereizkeria definizio horren barruan sartuko da.

Barne- eta kanpo- komunikaziori dagokionez, zentzu horretan hartzen diren erabaki guztiak jakinarazi egingo dira, eta proiektatuko den enpresaren irudia emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipio horrekin bat etorriko da.

Azaldutako printzipioak betetzeko oraingo egoera hobetzen duen Berdintasun eta Aukera Plana inplementatuko da, eta bidezko segimendu-sistemak ezarriko dira, Kooperatiban eta, hedaduraz, gizarte osoan, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean aurrera egiteko helburuarekin.

Helburu hori betetzeko, Errektore Kontseiluak, 2020/05/29an bilduta eta uztailaren 9ko Kooperatiben 12/2015 Legearen arabera balio osoz eratuta, haxe erabaki du:



- (i) SOM ENERGIA SCCL-ren izenean, Verònica Baquero Ripoll eta Clara Calbet Domingo, Kooperatibako Talde Teknikoaren laguntzarekin, Berdintasun Planaren analisiaren eta diseinuaren arduradun izendatzea.
- (ii) SOM ENERGIA SCCL-ren Errektore Kontseiluko Koordinazio Bokalia Planaren inplementazioa bermatzeko arduradun izendatzea.
- (iii) Gerentzia Kooperatibaren ordezkari izendatzea Kooperatibaren eta lan-taldearen arteko akordioak sinatzeko prozesuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoan xedatzen diren baldintzetan.

Girona, 2020ko maiatzaren 29a

Victoria Pellicer Sifres

Errektore Kontseiluko presidentea

[Ikusi sinadura jatorrizko [dokumentuan](#), gaztelaniaz.]